



Ez daukat ezer ezkutatzeko, egiten dudana jendeari iristea nahi dut

SAIOA, MUSIKARIA

Errekastoen tankeran agertu eta desagertu egiten da; aldiro ongarritzen du kantugintzaren lurra bere emariarekin, eta ondoren atseden hartzen du. Zuzenekoekiko “fobia” gainditzeke du oraindik. Bitartean, bere musika jendearengana iristea nahi luke, eta jendeari irits dakion. *Ateak* zabaldu dizkio egonean geldi zegoen bere sorkuntzari.

 GORKA EROSTARBE LEUNDA  DANI BLANCO

Radiohead tabernan. “Asko gustatzen zaidan taldea da, ez hasierako diskoengatik, *In Rainbows*-etik aurrerakoagatik baizik. Azkena ere sekulakoa iruditzen zait”. Astearte arratsa da Ordizian (Gipuzkoa), udazken beteko arratsa. Saioa Garinek (Legorreta, Gipuzkoa, 1978) –Saioa izen artistikoz– ondo akorduan du oraintsu urtebete Feministaldiaren baitan antolaturiko kontzertuan parte hartzeko gonbita jaso zuela. Donostiako Bukowskin izan zen kontzertu hura, musikari emakumeek emana. Han sentitutako babesak eman zion bultzada *Ateak* lan berria sortzeko. Aurrez beste hiru zituen eginak: *Particular Land* (2007), *Matrioska Heart* (2008) eta *Natura* (2012).

Ordiziako parkea hautatu duzu argazkietarako, udazken orbelez jantzia. Orbel artean entzuteko musika da zurea?

Udazkena ulertzen badugu etxe barruan egoteko sasoi modura, egokia izan liteke disko hau entzuteko, bai. Etxean, den-

bora hartuz letrei erreparatzeko, lasai entzuteko diskoa da. Ez da kontzienteki egindakoa, baina horrela ateratzen zait niri. Aurrekoak ere horrela dira pixka bat, ezta? *Natura* apur bat pop-ago zen, bandarekin lagunduta grabatu nuelako, baina gainerakoan bai.

***Natura* diskoa aurkeztu ondoren desagertu zinen eta beste sei bat urte igaro dira. Zergatik orain? Zer barne bulkada izan duzu *Ateak* irekitzeko?**

Iazko abenduan Feministaldia egin zen Donostian. Kontzertu bat egin zen Bukowskin eta horretan parte hartu nuen. Bi abesti jotzeko aukera izan nuen. Jendaurrean jotzeak ikara eszenikoa ematen dit, baina hor oso gustura aritu nintzen, eroso eta babestua. Kontzertuaren ostean solasaldi bat izan nuen Birkit musikariarekin; luze hitz egin genuen gau hartan, eta sortzera animatu ninduen. Egun, denbora libre dezente daukat, eta esan zidan: “Aprobetxa ezazu sortzeko. Eseri zaitez eta hasi kantak sortzen. Saiatu”. Nik erabat utzia neukan

musika, ez nintzen jartzen gitarrarekin, eta horrela zaila da ezer sortzea. Beste edozeinek esanda igual ez zitzaidan iritsiko, baina hark esan zidan moduak, edo gauaren bereziak... bada, motibatu egin ninduten. Eta urtarrilean, Gabonen ostean, hasi nintzen lanean, kantak sortzen.

Zergatik utzi zenion erabat musika egiteari?

Arrazoi nagusia zera izan zen: paniko eszeniko hura ez zela *sendatuko* garbi ikusten nuen. Neure burua oso ondo ezagutzen dut eta badakit hala dela. Dezenteko baxualdiak eman zidan errealitate horretaz jabetzean, eta uste dut tristura hark ez zidala abestiak sortzeko motibazio minimorako indarririk uzten.

Zuzenekoan kontua behin betiko alboratua daukazu?

Beldur eszenikoa hasieratik izan dudana gauza bat da, ez da *in crescendo* joan den gauza bat. 2006an *Particular Land* lehena plazaratu nuenean laino batean



sentitu nintzen. Nire betiko ametsa zen diskoa ateratzea eta zuzenean jotzea, eta egun batetik bestera ikusi nuen nire burua Sr. Chinarro eta beste zenbait teloneatzen. Beti sufritu dut zuzenekoetan. Momentuz, behin betirako harturiko erabakia da. Ez dut nire burua zuzenekoetan ikusten. Iaz Feministaldian jo eta gero gogoz geratu nintzen: bi abesti izan ziren, eta beste pare bat ere gustura joko nituen. Betirako ez da ezer itxi behar, baina garbi daukat beldur hori hor dagoela. Nik ezin dut aste honetan hemen eta hurrena han jo. Ez dut uste horrela inoiz ariko naizenik. Beste gauza bat da igual proposamen bereziren bati erantzutea, edo nik eduki dezaket gogo berezi bat, eta nahiz eta jakin momentu txar batzuk pasako ditudala, bada, animatzea... Horri atek ez dizkiot ixten.

Natura-rekin bat edo beste eman zenuen.

Bai, kontzertu bat izan zen berezia, Bilbon. Pony Bravok jo zuen, baita Los Separatistas-ek ere. Haiek eta neuk jo genuen.

Zer sentitu zenuen?

Beti samar gertatu izan zaidana. Kontzertu hori hitzartua izango nuen hilabete lehenago-edo. Orduan, burua lanean hasten zait, hasten naiz irudikatzen hutsak egingo ditudala zuzenean, adibidez gitarrarekin, eta bakarrik jotzen dudanez, oso nabarmena izango dela, jendea konturatuko dela... Nire organismoa ere aldatzen hasten da, egonezin moduko bat sortzen zait, argaltzen hasten naiz, lehen ere argala izanik; lo egiteko arazoak izaten ditut... Eta, horrez gain, oso inportantea dena, kontzertuan berean ezin disfrutatu. Musikari askok esango dizute: "Sartzea kostatu egiten zait, baina gero asko disfrutatzen dut...". Baina nik ez nuen une bakar batean ere disfrutatzen, eta bukatzen zenean arindu izugarri bat sentitzen nuen. Baina arindua izanagatik, hurrengo egunean sentsazio txarrak izaten nituen. Ez dut disfrutatu, beraz, zertarako segi horrela? Ekonomikoki ere ez da inolako bultzada eta sikiera disfrutatuko banu minimoki... ba gustura segiko nuke jotzen.

Paradoxikoa gerta liteke, eta interesgarria horrexegatik, zuzenekoekiko halako beldur/errespetua izan eta, aldiz, kanta berriotako biluztasun erabateko hori, oso ausarta dena.

Ausarta izan daiteke bai, baina nik ez dau-



kat ezer ezkutatzeke, eta egiten dudana jendearengana eta jendeari iristea nahi dut. Abestiak ez dira %100 autobiografikoak, baina hor asko dago niretik. Nire izateko era hori da, erabat onartua daukat, baina akaso, ni kontziente izan gabe, izan liteke hori beste faktore bat zuzenekoetan beldurra sentitzeko. Sufrimenduei buruz kantatzen ari zarenean, besteen aurrean esposizio handi batetik ari zara. Akaso posible da inkontzienteki karga hori eramatea neurekin kontzertuetara.

Zure kantak barnera biltzekoak direla esan izan duzu. Besteengan ere barnera biltzeko musika bilatzen duzu?

Bai, askotan bai. Normalean nire fabritoa dira nahiko malenkoniatsuak, atormentatuak... Daniel Johnston ere bere lo-fi estilo horretan asko gustatzen zait, bere gaitz eta abar. *Masoka* samarra naiz zentzu horretan.

Daniel Johnston aipatu duzu. Zure diskoko lehen kantak *Oihukatzen du du* izenburutzat. Johnstonek ez zuen oihukatzen, baina harena bazen barne oihu bat. Zure kantaera ere halatsu?

Bai, identifikatzen naiz horrekin. Ez baitira soilik malenkoniatsuak, batzuk oso existentzialistak dira, etsiaren kantak. Nostalgiaz geruza bat sakonago, alegia.

Natura-n euskaraz abesten hastearekin batera, hizkuntza soilik ez, kantaera ere aldatu zenuen, ahotsa modulatzeko era...

Bai, niretzako okerrera aldatu nuen.

Oso naturala da, batere artifizioirik gabea.

Bai, hala da. Ingelesez kantatu izan dudanean gehiago jo dut beste musikari batzuen kantaeretara. Beti izan dut oso gustukoa Cat Powerren kantatzeko era. *Matrioska Heart* entzuten dut orain eta lotsa ere ematen dit, kasik kontzienteki imitatu nahian nenbilen. Oso ahots nikotinikoa dauka, gastatua bezala. Nire ahotsa gehiago gustatzen zait horrela, baina artifizialagoa da. Naturalagoa da euskaraz abesten dudanean, zalantzarik ez. Eta izan liteke barne oihu bat, bai. Batzuetan gora egin behar dudanean, desafinatzeke muga-mugan.

Ausarta da.

Daniel Johnston deskubritu nuenean ikusten nuen inperfekzio mordoa zituela agian, baina ez zitzaidala batere kostatzen hura entzutea, eta melodia izugarriak zituela; ez dut esango The Beatlesen pare, baina melodia zoragarriak. Hain natural abesten zuen, melodia potente horiekin, bere barne mundu hori islatuz... Nik uste izan duela eragina nire musikan.

“

Sufrimenduei buruz kantatzen ari zarenean, besteen aurrean esposizio handi batetik ari zara. Posible da inkontzienteki karga hori eramatea neurekin kontzertuetara”

“Lehen ikusten nuen hosto bat mugitzen eta jarriko nintzen kanta bat idazten, orain irudi berriak agertzea kostatzen da”

Denboraren talaiatik, nola ikusten duzu orain ingelesez kantatzen zenuen garaia? Berriz kantatuko zenuke ingelesez?

Ez, ez dut uste. Beno, sekula ezin liteke esan “sekula”, baina uste dut asko irabazi dudala, gertuko entzulegoa irabazi dut, baita familian ere. Mezua iritsi egiten da, eta *feedback*-a bestelakoa da. Jendeak jaso egiten du, eta hitz egiten dizu kantatzen. Horrek askoz ere gehiago betetzen nau. Gainera, momentu honetan zuzenekoak ez ditudanez ematen, komunikazio hori oso da garrantzitsua. Eta nire ama hizkuntza da! Nire hizkuntza maitatzen ere hasi nintzen euskaraz kantatzen hasiarekin bat. Konturatu naiz zer aberatsa den. Hitz bat ezagutu eta hari bueltaka hasten naiz eta... Oso emankorra da euskararen niretzat, pertsonalki eta artistikoki.

“Matazaren haritik tiraka nabil oraindik” diozu *Bakoitzak bereari kantan*. Musikaren arloan zein hariri tiraka zabilte oraindik?

Beti nabil melodia berrien bila. Aurrekoa gainditu nahi duzu, eta akorde berrien bila aritzen naiz. Disko honetarako aurkitu nituen akorde batzuk, gustura nengoen haiekin eta kanta zenbaitetan erabili ditut.

Zein akorde?

Kolore desberdin bat duten akordeak dira. Neuk hastapenetan do maiorra, re maiorra... erabiltzen nituen, betikoak. Gero hasi nintzen minorrekin jolastean. Ez daukat ikasketa musikalik, baina neure kabuz zerbait ikasi dut. Beti joan naiz gitarra klaseetara eta abar; akorde bihurriagoak dira oraingoak. Joseba Irazoki entzuten baduzu, adibidez, berehala konturatzen zara, “arraioa, zer akorde berezi erabili duen! Eta zein ondo erabiltzen duen progresioan!”. Hori da erronka, akorde berriak aurkitzea, eta hitzen aldetik, berdin. Ez ditut beti hitz berdinak erabili nahi, metafora berrien bila nabil, euskaraz irakurtzen saiatzen naiz.

Musikalki nondik jaso dituzu pista berriak?

Ordezko akordeak deskubritu nituen eta asko erabili ditut. Deskubritu nuen Gravenhurst taldea. Ia desagertua dago, abeslaria (Nick Talbot musikaria eta kazetaria ere bazen) hil egin baitzen, eta flipatu egin nuen hark erabiltzen zituen akordeekin. Lortu nuen haietako batzuk nireira ekartzea, eta horiek erabili ditut sarri samar.

Natura ateratzean esan zenuen Anari ezagutzeak eman zizula halako aupada bat. Beste euskal deskubrimenduren batek eman dizu bultzadarik?

Euskal folk tradizionala ez dut askorik entzun. Mikel Laboa bai, ikaragarri gustatzen zait eta Benito Lertxundi gustatzen zait, baina azkenaldikoa gehiago hasieratakoa baino. Bestetik, Moxalen azken diskoa asko gustatu zait eta Mursego ere dezente entzun izan dut. Bidehutsako taldeak jarraitzen ditut. Mursego entzuteak ez dakit izan duen eragin zuzena... baina zerbait bai. Adibidez, disko honetatik *Ogi apur ilarak* hartzen baduzu, ipuin baten modukoa da... Garai batean Elurretan-ek egiten zuen hura ere oso gustuko dut, balio dezakeena berdin umeentzat edo helduentzat. Eragin nabarmen-nabarmenik agian ez dut izan; Anari beti, diskoa ateratzen duen aldiro entzuten dut sarri-sarri.

Zure ibilbidearen hastapenetan aipatzen zenuen pasierak asko pizten zizula sorkuntza? Oraindik horrela da?

Bai, egunero dut ohitura pasieran joate-

ko, kontua da orain irudiak ez zaizkidala hain sarri etortzen. Lehen ikusten nuen hosto bat mugitzen eta jarriko nintzen kanta bat idazten, orain irudi berriak agertzea kostatzen da. Uste dut hori musikari askori gertatzen zaiola. Badaude salbuespenak. Nick Caveri etengabe datozkiola ematen du, hura ez dago isiltzerik! Baina niri geroz eta gehiago kostatzen zait. Hala ere, konturatu naiz sei urtez isilik egonik ere, gauzak irakurri ditudala, filmak ikusi ditudala, liburuak irakurri, musika entzun dut... guk uste duguna baino gehiago doa egosten gure barruan.

Zuzeneko zirkuituetatik kanpo egonik, aurkitu duzu euskal musikagintzan zure lekua? Gehiago landu nahi zenuke hori edo gustura zaude zure lekuarekin?

Ni ibili izan naizenean kontzertuak ematen, batean eta bestean, normalean telonero lanak egin ditut, eta jendea ezagutu dut baina ez ditut lagunak egin, ez asko behintzat. Nahiko prozesu bakarti bezala bizi izan dut, nahiz eta jendea ezagutu, haiekin afaldu eta abar. Oso barrutik bizi izan dut hori. ●

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com